



GIZA ESKUBIDEEN
NAZIOARTEKO IV. BILTZARRA

IV CONGRESO INTERNACIONAL
DE DERECHOS HUMANOS

Herritarrak
eta Giza Eskubideak:
GEROKO HIZKETA

Ciudadanía
y Derechos Sociales:
UN DISCURSO DE FUTURO

EUSKO JAURLARITZAREN GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIOARTEKO IV. BILTZARRA HERRITARRAK ETA ESKUBIDE SOZIALAK: GEROKO HIZKETA

Giza eskubideen agenda globalak erronka askori erantzun behar dio oraindik ere. Erakundeek eta gizarte zibileko eta unibertsitate-munduko eragileek giza eskubideak ikertzen, aplikatzen eta babesten jarraitzen dute buru-belarri, haiek bete-betean gauzatzea eta gizakion askapena azken xedetzat hartuta. Giza eskubideek gaur egun erantzun beharreko erronken artean eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei dagozkien erronkak nabarmendu behar ditugu bereziki.

Justizia soziala eta ondasunen banaketa ekitatiboa eskatzen duten aldarrikapenen justifikazio etikoa eta babes juridikoa egituratzen jarraitzen dute giza eskubideek. Asmo eta nahi hori, ordea, urruti dago guztiz lortua izatetik eta prozesu historiko luze eta neketsuen bidez lortutako arrakastak kolokan daude etengabe, ikuspegi osagarrietatik arreta berezia behar izanik uneoro. Eskubide sozialen alorrean hutsune larriak aurkitzen ditugu oraindik eskubideon erabateko gauzatzeari dagokionez, haien alde baliabide asko eta asko erabiltzen diren arren. Ahaleginok indartzeko beharrari nahiz haien ezintasun edo desegokitasunari buruzko tirabirak gizarte-zientzien inguruan gaur egun dagoen eztabaidaren funtsezko gaiak dira. Esparru horretan, eskubide horiek eztabaida ideologiko bizi-biziko eremua osatzen dute eta mundu-ikuskerak desberdinek gizarte-eredu desberdin-desberdinak aurkezten dizkigute. Bestalde, ikuspegi teorikoari dagokionez, zenbaitek eskubide sozialen funtsa eta oinarriak auzitan jartzen dituzte oraindik, eta haien irismenak behar bezala zedarritu gabe jarraitzen du. Gainera, ez dago batere garbi nola bermatu behar den eskubideon gauzapena. Eskubide sozialak gure garaiko filosofia moral eta politikoaren eta gizarte-zientzien gako nagusietako bat dira, azken batean.

Aipatutako arrazoiek garrantzi berezi eta sakonagoa hartzen dute gaurko egunean, eta hori dela eta apropos-aproposa gertatzen da eskubideok aztergai hartzea. Mundu-mailako krisi sakona, ondasunen banaketaren polarizazioa, Europako ongizate-ereduak jasaten dituen tentsioak eta garapeneko eta gizarte-kohesioa politiken bideragarritasunaren krisia justizia sozialaren, herritartasun substantiboaren eta eskubide sozialen auziak gaurko egunean eta etorkizunerako ditugun proiektuetan duten pisu handiaren erakusgarri adierazgarrietakoak dira.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak, aipatutako sakoneko arrazoiekiko duen sentsibilitate bereziari jarraiki eta 2010 Pobreziaren eta Gizarte Esklusioaren aurkako Europar Urtea dela aprobetxatuz, giza eskubideei buruz antolatzen duen biltzarraren IV. edizioan gai horiek aztergai hartzea erabaki du. Horretarako, jakintza-alor desberdinetatik helduko zaio gai horri, gogoeta akademikoa bultzatuko da Euskal Herriko eta munduko akademikoen artean eta teoria eta praktika uztartuko dira biltzar honetan.

José María Sauca Cano
Batzorde Zientifikoaren koordinatzailea